



AUZOS AUZO

Udala eta Auzo Elkarteen
arteko bilerak

MARTUTENE BILERAREN LABURPENEA

Eguna	2015-12-14
Ordutegia	19:00- 20:30
Tokia	Sarroeta Elkartearen Egoitzan



DEITUTAKOAK

Sarroeta AAEE/AAVV

Azpiegiturak, Mantentze eta Herri Partaidetza

Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK

Sarroeta AAEE:

Lehendakaria eta 2 bokal
Presidenta y 2 miembros de la
asociación

Udaleko Partaideak

Jurdana Arruabarrena, Tekniko /
Técnica

Amaia Agirreolea, Tekniko / Técnica

HELBURUA:

Martutene inguruan hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.

Landutako gaiak

1. Pilar auzuneko arbolak kimatzea.
2. Ikastola aldean dauden semaforoaren inguruko landareak kimatzea, Mari Curie parkekoak.
3. Arbola zuloak tapatzeko burdinsareei begiratu eta konpontzea, batez ere auzunekoak.
4. Abiadura moteltzekoak jartzea auzuneko kaleetako bidegurutzeetan.
5. Baldosa batzuk loka izatea autobus geltokiaren azkeneko geltokiaren eta Etxarrieneren artean diren etxeen inguruan 2011ko uholdeez geroztik.
6. Okendotegi 92an:
 - zaborrontziak;
 - bideko brea gaizki egotea;
 - kalea noizbehinka garbitzea.
7. Iberdrolaren transformadorea.
8. Auzo elkartearen lokaleko argindar kontratua aldatu beharra.
9. Zubia bota eta gero garraio publikoak izango dituen ondorioen gaineko behin betiko neurrien berri emateko eskatzea Mugikortasunari.

Gaien azterketa

1.- PILAR AUZUNeko ARBOLAK KIMATZEA.

Dagokion zerbitzuari jakinaraziko zaio, haien kimatze zerrendan sartzeko.

2.- IKASTOLA ALDEAN DAUDEN SEMAFOROEN INGURUKO LANDAREAK KIMATZEA, MARI CURIE PARKEKOAK.

Eginda dago lana.

3.- ARBOLA ZULOAK TAPATZEN DITUZTEN BURDIN SAREEI BEGIRATU ETA KONPONTZEA, BATEZ ERE AUZUNEKOAK.

Bertara joanda egiaztatu dute parrilla batzuk hondatuta daudela, eta Askatasunaren hiribidean jarrita dauden breazko iragazkor batzuk jartzeko aukera aipatu dute.

4.- ABIADURA MOTELTZEKOAK JARTZEA AUZUNEKO KALEETAKO BIDEGURUTZEETAN, BATEZ ERE ESKOLARAKO OHIKO BIDEETAN DIRENETAN.

Mugikortasunekoei jakinaraziko diegu eskaera.

5.- BALDOSA BATZUK LOKA IZATEA AUTOBUS GELTOKIAREN AZKENEKO GELTOKIAREN ETA ETXARRIENEREN ARTEAN DIREN ETXEEN INGURUAN 2011KO UHOLDEEZ GEROZTIK.

Dagokion zerbitzuari jakinaraziko zaio, brigaden konponketa zerrendan sartzeko.

6.- OKENDOTEGI 92AN:

- **Zaborrontziak.**

Sarroeta auzo elkarteak: Lantegi batzuetakoek (autobidearen azpian direnetakoek) etxeko zaborra botatzeko ontzietara botatzen dute beren zaborra, eta zikinkeria, arratoiak inguratzea eta abar eragiten dute.

Jakinaraziko zaio dagokion zerbitzuari.

- **bideko brea gaizki egotea.**

Dagokion zerbitzuari jakinaraziko zaio, brea botatze zerrendan sartzeko. Hori baino lehen zuloak tapatzeko modurik izan daitekeen-edo ere begiratuko da.

- **kalea noizbehinka garbitzea.**

Jakinaraziko zaio dagokion zerbitzuari.

7.- IBERDROLAREN TRANSFORMADOREA.

Sarroeta auzo elkarteak: Uholdeak izaten direnean ondorio larriak ekartzeko moduko puntu bat ez izateko Iberdrolarekin izaten ari diren negoziazioen berri izatea eskatzen dugu.

Eskatuko diogu horren berri emateko dagokion zerbitzuari.

8.- AUZO ELKARTEAREN LOKALEKO ARGINDAR KONTRATUA ALDATU BEHARRA.

Sarroeta auzo elkarteak: argiaren kontua jaisteko moduko neurri batzuk hartzeko bidea ematea eskatzen dugu (kontagailua aldatzea edo tarifa aldatzea, esate baterako).

Jakinaraziko diogu dagokion zerbitzuari, zer aukera dagoen begiratu dezan hark eta zer aukera komeni zaion erabaki dezan gero elkarteak.

9.- ZUBIA BOTA ETA GERO GARRAIO PUBLIKOAK

Horrek izango dituen ondorioen gaineko behin betiko neurrien berri emateko eskatzea Mugikortasunari, eta Okendotegitik motoak eta kotxeak ere pasatzen direla jakinaraztea. Motoren bat edo beste oinezko zubi berritik ere pasatzen da.

Jakinaraziko zaio dagokion zerbitzuari.

10.- SARRUETA, TRANBIA, OION ETA MARTUTENE PASEALEKUA

Hirigintza planak izango dituen aldaketan berri emateko eskatzea Hirigintzakoei, eta Trinketen bota gabe dauden etxeak noiz botako dituzten ere esateko.


Jakinaraziko zaie Hirigintzakoei.

11.- AMABIRJINAREN INGURUA.

Urbanizatutakoan atzeko aldean berdegunerik ez jartzeko eskatzea URari, zakur asko inguratzen delako hara eta zaila delako garbi eustea.

Esango diogu obraren jarraipena egin behar duen udal arduradunari URakoei jakinarazteko.

12.- ELKARTEKOEK POZIK DAUDELA ESAN DUTE KIROL PISTAK ITXI ETA BABESTEKO LANAREKIN.



**Eskerrik
asko!!**